



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Behin betiko onespena, Venezuelen 2026ko ekainaren 24an izandako lurrikarek eragindako pertsonen larrialdiko laguntza emateko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzeneko dirulaguntza emateko arau erregulatzailer bereziak.

Udalbatzak, 2026ko uztailaren 29ko ohiko bilkuran hasierako onarpena eman zien «Venezuelen 2026ko ekainaren 24an izandako lurrikarek eragindako pertsonen larrialdiko laguntza emateko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzeneko dirulaguntza emateko arau erregulatzailer bereziei».

Jendaurrean jartzeko epea igaro eta erreklamaziorik, alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, behin-behineko onspenen erabakia behin betiko bihurtzen da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua betez, testu osoa argitaratzen da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratu eta hamabost egunera jartzen da indarrean».

Basaurin, 2026ko irailaren 4an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren



**IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEEI ZUZENeko DIRULAGUNTZA EMATEKO
BALDINTZA ARAUTZAILE BEREZIAK LARRIALDIKO LAGUNTZA EMATEKO 2026KO
EKAINAREN 24AN VENEZUELAN GERTATUTAKO LURRIKAREK KALTETUTAKO PERTSONEI**

1. Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntzaren helburua da Venezuelako biztanleei larrialdiko laguntza ematea, 2026ko ekainaren 24an gertatu ziren ondoz ondoko bi lurrikara handi direla eta. Lurrikara horiek herrialdearen erdialde-iparraldeko eskualdean eragin handia izan zuten, eta jende asko bizi den lekuetan eragin larria izan zuten, hala nola Hiriburu Barrutian, Mirandan, La Guairan, Carabobon eta Yaracuyen.

Segundo gutxi batzuetan, milioika pertsonen bizitza aldatu zen. Horrek eskualdeko testuinguru ahulenetako bat eragin zuen. Giza inpaktua suntsitzaila izan da: azken balantze ofizialaren arabera, 1.450 hildako eta 3.150 zauritu baino gehiago daude. Kopuru horiek gora egiten jarraitzen dute kolapsatutako egituren arteko bilaketa- eta erreskatelaneak aurrera egin ahala.

Kalkuluen arabera, 6,76 milioi pertsona egon litezke kaltetuta. Horietatik, 2 milioi pertsona inguru Caracasen bakarrik, herrialdeko hiri jendetsuenetakoa izanik. 1,8 milioi pertsona premia humanitarioko egoeran daude, horien artean 680.000 haur, biziraupenerako, osasunerako eta ongizaterako arrisku larriei aurre egin behar dietenak.

2. Araubide juridiko aplikagarria

- a) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2c) eta 28. artikulua.
- b) Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalaren Oso-ko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onartua eta 2024ko abuztuaren 6an BAOan argitaratua (16. eta 27. artikulua).
- c) Baldintza arautzaile bereziak.
- d) Oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra.

3. Erakunde onuraduna

Behar bezala erregistratuta dagoen eta irabazi-asmorik ez duen gobernu kanpoko erakunde, elkarte edo organizazio bat izan daiteke onuradun, baldin eta dirulaguntzaren xedean jasotako helburua duen proiektu edo jarduerak badu.

Elkarte onuradunak helburua bete, proiektua gauzatu eta/edo dirulaguntza emateko oinarri diren jarduerak egin beharko ditu.

Eratuta eta EAEko erregistroan formalki inskribatuta egon beharko du.

Honako baldintza hauek betetzen dituen erakundea ezin izango da onuradun izan:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zerrendatutako edozein.
- b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala izatea, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, arraza edo erlijioagatik diskriminazioagatik, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean egotea.
- c) Beren estatutuen arabera, onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexua, arraza edo erlijioa dela-eta diskriminatzen dutenak. Hori dela eta, erakundeek berariaz bete beharko dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, eta programa edo proiektuaren aurkezpenean, genero-ikuspegia txertatzean eta haren edukian hizkera ez-sexista erabiltzean berariaz islatuko da. Horretarako, inplikaturako arloko aholkularitza eta laguntza izango dute, eta irizpenaren aurretik lankidetzarako eta zuzentzeko tarte nahikoa ezarriko dute. Hori guztia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen marxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez.

**4. Emateko prozedura**

Dirulaguntza zuzenean emango da Alkatetzaren ebazpen bidez, dirulaguntza berezia delako eta deialdi publikoa egitea zaila delako.

5. Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 5.700 eurokoa da, 53.2317.48910 aurrekontu-partidaren kargura.

6. Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Basauriko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin.

Basauriko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin.

Nolanahi ere, dirulaguntzen eta bestelako iturrien bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

7. Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak. Bermeen araubidea

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio elkarte onuradunari, justifikazioa egin baino lehen, eta ez da bermerik eratzea eskatuko.

8. Proiektua / Gauzatzeko epea

Proiektuaren iraupena 12 hilabetekoa izango da gehienez, eta indarrean dagoen aurrekontu- ekitaldian hasiko da.

9. Publizitatea

Entitate onuradunak lege ezarritako hedapen-neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo edozein motatako jarduerak Basauriko Udalak babesteari dagokionez.

Era berean, egindako publizitate guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da.

Zabalkunde-bideak diruz lagundutako xedera egokitu beharko dira, bai formari bai iraupenari dagokionez, hauek izan daitezkeenak: diru-laguntza eman duen erakundearen irudi instituzionala sartzeari, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

1/2016 Legea, apirilaren 7koa, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketak betez, publizitatean ezin izango da tabakoaren eta edari alkoholduen kontsumoa inola ere sustatu (kartelak, babesletza, sariak, etab.).

Jardueren publizitatean, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez, hizkera ez-sexista erabili beharko dute, eta, era berean, ezin izango dituzte pertsonak beren sexuaren arabera giza duintasun gutxiagokotzat edo gehiagokotzat edo sexu-objektu soiltzat aurkeztu, ezta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu eta/edo horretara bultzatu ere.

Diruz lagundutako jardueren hedapenari buruzko betebeharrak alde batera utzi gabe, entitate onuradunak jasotako diru-laguntzen publizitatea egin beharko du, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen ezarritako modu eta baldintzetan. Lege horren 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspena erabiliz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala bitarteko elektronikoa izango da publizitate-betebeharrak betetzeko.

**10. Diruz lagun daitezkeen gastuak**

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, behar bezala justifikatuta egonik, diruz lagundutako jardueraren izaerari zailentzari gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektuan ezarritako epean egiten direnak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango.

11. Jasotako diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua

Bi hilabete, hasiera batean proiektua edo jarduera amaitzeko aurreikusitako egunetik zenbatzen hasita, salbu eta dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitu ondoren egiten bada. Azken kasu horretan, bi hilabeteko epea jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Entitate onuradunak, aldez aurretik ezarritako epean, informazio hau jasotzen duen justifikazio-kontua aurkeztu beharko du Udaleko Erregistroan:

- a) Aurkeztutako proiektuaren arabera dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- b) Jarduketaren memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, onuradunei edo erabiltzaileei buruzko informazioa eman beharko da, sexuaren arabera banakatuta.
- c) Programa gauzatzeari dagozkion dirusarrera eta gastu guztien balantzea, eskatutako programarako beste erakunde, erakunde eta/edo pertsona publiko eta/edo pribatu batzuek emandako eta/edo jasotako laguntzak eta/edo dirulaguntzak zehaztuz, idazkariak sinatua, erakunde onuraduneko lehendakariaren oniritziarekin.
- d) Beste erakunde publiko batzuek diru-laguntzak edo laguntzak emateko hartutako erabakien kopia.
- e) Programaren gastu guztien jatorrizko fakturak eta horien fotokopiak. Justifikatzeko zailak diren gastuen kasuan, gastu-egiaztagirak onartuko dira (tiketak, kreditransak,...), gehienez ere diruz lagundutako zenbatekoaren % 10ekoak, eta inolaz ere ez 200,00 eurotik gorakoak. Langileen gastuak eta dietak nominen bidez justifikatuko dira.
- f) Diruz lagundutako jarduera edo programa zabaltzeko egindako publizitatearen adibidea, Basauriko Udalaren babesa berariaz agertzen bada. Egindako publizitate guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da.
Zabalkunde-bideak diruz lagundutako xedera egokitu beharko dira, bai formari bai iraupenari dagokionez, hauek izan daitezkeenak: diru-laguntza eman duen erakundearen irudi instituzionala sartzea, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.
- g) Udalak gastua hobeto justifikatzeko eska dezakeen beste edozein agiri, hala nola erantzukizunpeko adierazpen bat, non adieraziko baita aurkeztutako fakturak jatorrizkoak direla, eta konpromisoa hartuko da faktura horiek beste edozein erakunde publiko edo pribatutan ez aurkezteko, laguntza bat dagokion baliozkotzerik gabe justifikatzeko.

12. Itzultzeko betebeharra

Entitate onuradunak itzuli egin beharko ditu dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak eta aurreikusitako interesak dirulaguntza ordaindu zenetik bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Basauriko Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorraren 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Jardueren kostuarekiko gehiegizko finantzaketa ere itzuli egin beharko da.

**13. Zehapen-araubidea**

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak. Zehazki, arau-hauste arina da jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazio-kontuak epez kanpo aurkeztea.

14. Diru-laguntzaren finantza-kontrola

Kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontroleko jarduketan mende jarriko da elkartea, eta horretarako, hala eskatuz gero, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 44.4.a), b), c), d) eta f) eta 5. Artikuluetan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Elkartek kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta eduki beharko ditu, indarrean dagoen legeriak eskatzen dion moduan, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala baliatzen direla bermatzeko.